BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4485

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 2koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2011n euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzen balorazio-batzordea osatzen duena.

Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuak, 2011ko apirilaren 20an, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2011n euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak emateko modua arautu zuen agindu baten bidez (LanHitz deialdia). Agindu hori 2011ko maiatzaren 10ean argitaratu zen EHAAn.

Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko osatuko den balorazio-batzordearen osaera era honetan arautzen du agindu horren 12. artikuluak:

12. artikulua.– Balorazio-batzordea.

(...)

a) Kultura Saileko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, batzordearen buru izango dena, edo haren ordezkoa.

b) Kultura Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria, edo haren ordezkoa.

c) Foru administrazioetako hizkuntza politikaren ardura duen saileko teknikari bat, gutxieneko maila zerbitzuburuarena delarik.

d) Sozioekonomia arloko bi aditu.

e) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako Erabilera-planak Sustatzeko arduraduna, edo haren ordezkoa.

f) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuaren arduraduna edo haren ordezkoa.

g) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikari bat, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatua. Teknikari horrek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2011n euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntza deialdiaren balorazio-batzordeko kideen izendapena egitea.

Bigarrena.– Honako hauek dira 2011ko apirilaren 20ko Aginduaren 12.1 xedapenaren arabera izendatutako balorazio-batzordeko kideak:

a) Iván Igartua Ugarte jauna, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, batzordearen buru izango dena. Ordezkoa, Begoña Muruaga Laca andrea, Euskara Sustatzeko zuzendaria.

b) Patxi Martínez de Marigorta jauna, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria. Ordezkoa, Xabier Zabaltza Pérez-Nievas jauna, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako aholkularia.

c) Patxi Alberdi Asteinza jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hizkuntza Gizarteratzeko Ataleko burua.

d) Martin Auzmendi Ayerbe jauna eta Fran Azpiazu Lasuen jauna, sozioekonomia arloko adituak.

e) Koro Urkizu Miner andrea, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako Erabilera-planak Sustatzeko arduraduna. Ordezkoa, Edurne Basoa González andrea, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna.

f) Araceli Diaz de Lezana Fernandez de Gamarra andrea, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuko arduraduna. Ordezkoa, Jokin Azkue Arrastoa jauna, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzako Euskara-planen arduraduna.

g) Edurne Pérez de San Román andrea, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikaria, eta batzorde horretako idazkaria.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du, eta haren aurka interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 2a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
MARÍA LOURDES AUZMENDI AYERBE.